



Matrioxka

Maialen Lujanbiren testuak

Azaroaren 22a 12:00etan

Kale-irakurraldia



Goiz-eguzki




Lizeagako Jolas-leku estalia

MATRIOXKA

MAIALEN LUJANBIOREN TESTUAK

2020-11-22

HERNANI




ESKU artean dugun hau, Maialenen obraren lagin bat besterik ez da. 24 testu 24 tomoko entziklopedia osatzeko aukera dagoenetik. Maialen, bertsolari handia izateaz gain, testugile aparta delako. Ele egokienak maistratasunez josiz, bere begiradaren isla bihurtzen baitu testua. Ideiak hitzez bikain gorpuzten dituelako.

Honek, irakurraldi ibiltari bat behar zuen izan, Santa Barbara inguratuz. Badakigulako hernaniar eta hernaniartuontzat arnasmune den hori izateaz aparte, Maialenek argitasuna ere bilatzen duela bere paseoetan; errima galduren bat topatu izan duela; bere burua harrizterainoko bertsoren batekin tupust egin; ideiak azaltzen zaizkio bidera; inspirazioa aurkitu izan du.

Aurkitzeko begiratzen jakin behar.

Irakurri, entzun, gozatu.

SAGAR HANDIARI BUELTA BAT



1. LEOKA

HARRIZKO galtzada batetik iritsi gaitezke historia darion Leokari. Mila urteko historia, 1016. urtean eraiki baitzen. Iturria eta garbileku bezala mendeetan erabilia.

Hernaniko alde zaharreko hegoaldeko sarbidearen arkupean azpialdean kokatua, bi elementu nagusiz osatua: harria eta ura. Hernaniko erdiguneko iturri bakarra XIX. mendeko erdira arte. Ura dario etengabe oraindik iturri zaharrari. Eta garbilekua: emakumeen istorioak antzeman ditzakegu bertan, elkarren ondoan belauniko, elkarren pare hizketan, elkar lagunduz arropak garbituz eta eguzkitan zintzilikatuz. Ez ditzala haizeak istorio guztiak eraman.



*Askok irudipena du...
Askok itxura hutsetik,
ez barruz ezagutzetik...
...ai, bistaratuko banu!*

*Askok irudipena du
minari naizela sorra,
barea eta gogorra...
...bai, barrua hautsia ez banu!*

Zerbait ernezear ote?

Berria, 2004-03-23

“Paretetan dagoen estaldura da, zuria eta distiratsua. Oso hidratatuta egoten den elementua, biguna eta oso plastikoa. Estutzean ur asko isurtzen du”. Ginekologo baten hitzak dira. Ernioko kobazulo batean aurkitutako likido zuriaz mintzo da. Kareharrizko leizeak baitira emakumearen barrunbeak. Lurrak emea behar zuen: hain emankor, hain sortzaile. Ginekologoak, emakumearen espeleologoak dira; espeleologoak, lurraren ginekologoak. Erniori barrunbeetan, “Ilargi esnea” aurkitu diote, isurki zuri laku bat. Ez da beraz Lurra eta Ilargiaren artekoa, sedukzioaren orbita justuan eman izan beti, distantzi neurtu horretan. Izan zen noizbait gau zoro bat, guk ez dakigun garai batean, Ilargiaren esnea isuri bazen lurraren umetokian. Arbasoek jakingo zuten hori akaso... “Ernio” ez ote dator “ernari”-tik...?.

Eta erneko ote da zerbait berririk hor... Lurra izorra ote? Bai, ez balu hileroko odolik isuriko eguneroko... Lurra izorra ote? Bai, ez balitz Ilargia ere eme... Lurra izorra ote? Edo etsi behar pentsatuz soilik dagoela izorratuta...

Bakarka gaia-emanda kartzelako-lana:
Bada ordu-erdi auto bera atzetik duzula

Doinua: *Norbere mundu intimo*
Barakaldo, 2017-12-17

Esan ziguten hau zala
pagotxaren erresuma
baina gaueko lanean
hemen gabiltza ze suma
negu hotzean jantzi gutxiz
dijoa gure jarduna
lanerako da gaua ta
lanerako da eguna
nolabait salbatzen degu
gure presente zurruna
biharra, etorkizuna
guretzat beti lurruna.
Gizon bat dijoa txofer
nigatik ordaindu duna
ez dakit bera ala ni
hemen nor den erruduna. (bis)

Miribillako rotondan
errekarriz errekarri
bezelaxe egin ditut
mila buelta errukarri.
Geratzen dira kotxeak
ta gu begira elkarri
beraiek “Etorri!” esan
ta guk “Dirua ekarri!”.
Nahi bezelako bezero
atseginik ez da sarri
ta askotan gisan orain
autoan estu ta larri.
Ertzain auto bat atzetik
eta sirenak aldarri
baietz bera libre utzi
ta neri isuna jarri! (bis)

Nerbioi ertza, San Frantzisko
Mercedetik ta Somera
hor doa gure ihesa
ta ihesaren errobera.
Nere animoak dabiltz
orain gora, gero behera
nere ezkerreko jaunak
ez dirudi oso onbera
ta ertzainak harrapatzen
ez bagaitu ere zera
pentsa zenbaterakoa
izango dudan plazera!
Horrelakotxea baita
gu prostituton papera
irabazten dugula ere
galtzen ateratzen gera. (bis)

Colombiana vasca

El Niño de Elcheren
Colombiana diskoan (2019)

Zure biziko ur bareetan ai, itoko ez bazina...
Beti ederrago India urrunak beti ederrago ezina
Han bada ahoa zerk gozatua bada zainak zerk piztua...
Bi itsas-haize elkarren kontra desira eta arriskua

Korronteetan bazaramatza Zu baitako itsasoak
Nork ez ditu nahi, kakao eta azukre...
Nor ez du galtzen gozoak...

Han bada ahoa zerk gozatua bada zainak zerk piztua...
Bi itsas-haize elkarren kontra desira eta arriskua
Kontrabandoan trukutzen dira larrua eta listua

Ezin guztien gainetik eta Azal guztien azpitik
Kakao ale txiki mikatzak Gehiago zuen eztitik


Matrioxka (remix)

HERNANIKO KALE LITERATURA

Matrioxka agertu zait
Eroskiko PVCko
33 zentilitroko ur botilan
ez diot galdetu zer daukan barnean
matrioxkak baino ezin baititu erditu
infinituraino
baina hizlaria da
eta aitortu dit
beste matrioxka bati entzuna diola
mundua dela ahizpa guztietan
txikiena
gordeena
planeta bat dagoela
azkenean
zapi
soineko
ezpain berdineko
matrioxka guztien
sabelean
sabelaren sabelean
sabelaren sabelean sabelean
sabelaren sabelean sabelean sabelean
hor dutela
PVctik
PVCaren PVctik
PVCaren PVCaren PVctik libratzeko
babesean
baina nekeza dela lana
zaila dela adosten zer den eta zer ez den
matrioxka bakoitzarentzat
eta
munduarentzat
PVCa

2. INSTITUTUA

BIDEGAIN etxearen ondoan, hego-ekialdera begira, mendiak dira nagusi lerroz lerro: Urdaburu, Onddi eta Adarra zerumugan. Han azpian, Zikuñagako hodei fabrika, jo ta ke; goian, goizeko eguzkiaren islak institutuko kristaletan eta paretetan. Asfaltozko patioan, zoruko marrak eta gazteen ahotsak.



*Askok irudipena du
minari naizela sorra,
barea eta gogorra...
...bai, barrua hautsia ez banu!*

*Askok irudipena du
ziur noala gorengo
bidean pausoa sendo...
...bai, dardararik ez banu!*

...Klika!

2019ko Korrikaren lekukoko mezutik

Hizkuntza ez da edukitzekoa.
Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika.
Beraz, KLIKA!
Instalatu eta elika!
Euskara, ez da euskararen gauzetarako aplikazioa.
Euskarak behar du
herri honen Sistema Eragilean.
Memoria handiko lur honen
hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa.
Euskara, bestelakoa baita...
Hain zuzen, besteak bezain bestelakoa.
Bestelakoa eta besteak bezalakoa.
Baina besteekiko badu alde bat:
euskarak dena du aurka;
eta horrexegatik juxtu, dena du mauka!
Dena baitu sortzeko, euskarak,
ia dena du-eta sortzeke.

Dena du egiteko, euskarak, dena du egiteke.
Hizkuntza bat dugu ahulguztiduna.

Ni-Tik

Berria, 2004-03-30

Biren elkarrizketa bat. Batak bere kontuak kontatzen ditu, gai bat mahaigaineratu. Besteak, planteaturiko gai hori jaso eta bere esperientzian kokatzen du. Zail da gaia bien erdian ipini eta erdira begira aztertzea. Bakoitzak, gaia barneratu, eta berarentzat suposatu duenetik hitz egiten du. Biren elkarrizketa bat eta esaldi guztiak hasten dira Nik... (Ez) entzuteko modalitate bat da: Ba nik...

Bitxia: zerbait buruan darabilgunean bere inguruko kontuak erakartzen ditugu. Pertsonekin ere, pertsona bat buruan darabilgunean, denbora gutxi baino lehen topo egiten dugu berarekin. Erakarpen indarra da. Bada, Eduardo Galeanok irratian dio esanguratsua dela munduan hitzik erabiliena dela Ni. Salbuespenak salbu:hizkuntzalari bat joan omen zen Mexikoko Maya herri batera, eta deus ulertzen ez bazuen ere, dena entzuten ei zuen Tik eta Tik. Tik, Gu zen hizkuntza hartan.

Euskaraz, aldiz, Tik atzizkia da. Jatorriaren berri ematen duena, baina beti atzetik doana. Horra hor. Esaten da euskaldunak Gu-tik hitz egiten duela; baina hori, Gu nor zen jakin zitekeen garaian izango zen.

**Jarritako gaia:
Argazkilaria zara;
oraintxe iritsi zara gertakariaren lekura,
eta lanean hasteko unea da**

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian*
Bergara, 2009-11-07

Irratiak zioen kaleetan
zela jendetza demasa
pankarta baten ostean oihuz
bete kale eta plaza.
Egoera da tentsoa eta
bazun iskanbila traza
hemen norbere hitzari eusten
ere ez dago erraza.
Orandik entzuten da oihartzuna
hori pelotazo jasa!
Lurrean odol arrasto batzuk
ta tentsiozko arnasa...
Kordioetik hara-hona nabil
foto bila nere kasa
baina kaskodun batek esan dit
“Hemen ez da ezer pasa”.

Jendeak ihes ein du korrika
behe-barru ta taberna
hasi denean pelotazoen
eta tiroen galerna.
Lehen ere hau ikusia baitut
hainbat urtetan barrena
ikusi ezta ere hori pasa da
imajina nezakeena.
Poliziari aurre eginez
nere argazkilaria sena
espaloi hutsak atera eta
esplikatu leike dena.
Nahiz eta ez dela ezer pasa
den esaten didatena
pasa ez denak erakusten du
sarri asko pasa dena.

Lehen ere problemak izan dira
orain sei urte inguru
lan egiten nun egunkariak
ze komeri! ze apuru!
Herritarrekin bat egin eta
beste berri bat helburu
eta geroztik Euskal Herria
dibujatzen dihardugu.
Herri berean gaude zu ta ni
baina nolako bi mundu!
Zure zentsura zure ezetza
bortitz segunduz segundu.
Baina herri honen berri emateko
nola beti gauden gertu gu
argazkirikan ez izan arren
hitzak jarriko ditugu.

Poesia (zubi bat) bertsolaritza

Ea, 2015-07-18

[moldatua]

Hizkuntza den erreka honetan
zubi alde batetik dihardu,
eta loturak ematen dion
libertateaz hitz egin digu.
Miresmen eta mespretxuaren
artean dagoen bertsogintza:
idatzi gabeko arauekin
prekario eta zoragarria.
Ahalik eta hitz gutxiekin
ahalik eta gehien esanez;
errimak garamatzen tokira
errima barik iristerik ez.
Bertsoak bertsoari neurriko
erantzuna emateko dohaina;
ez genekiena irakatsiz
bat-batekoak duen magia.
Ortografiako ikurrak:
ulertu da ala ez da ulertu?
Ekarpena begiradan dago
baina belarritik sartu behar du.

Ulertarazi, ulertarazi,
bertsolariaren obsesioa:
dela txapelketa nagusia,
dela herri txikiko saioa.
Denborak ez luke hobetuko
bertsoa, bertso ona denean;
hainbat figura literario
ezin aurkitu liburuetan.
Hobe beharrez bertsolariak
ezin dira tabernan geratu:
ertzen artean borobil dira;
borobilen artean, karratu.

3. LAKUA

HERNANI New York balitz, Santa Barbara litzateke gure Central Park, urmaela eta guzti. Putzu handi hori zuhaitzez inguratuta, harrobiak egin omen zuen. Belardien gainean Jaizkibel ikusi ahal da. Kotxeak astiro, hernaniarrak eta hernaniartuak han-hemenka, pasioan, elkarri agurtuz. Pasioak pasio, ez da viacrucis bat.



*Askok irudipena du
ziur noala gorengo
bidean pausoa sendo...
...bai, dardararik ez banu!*

*Askok irudipena du
munduan nagoela tentuz
iraultzaile pentsamenduz...
...bai, etxerako ere banu!*

Bizitzan benetakoa

Berria, 2004-03-25

Jolas parkeak puntako teknologiaren erakusleku izan baino lehenago, jolas proposamen eskulanezko zirenean, orduan dibertigarri ziren irudia deformatzen zuten ispiluak. Bada ispilu menditsu haiek bezalakoxea, halakoa da denbora. Bizitzako une batzuk, hanpatzen dituena, eta pittin bat mugituz gero, puntu berori, ñimiño bilakatu. Une batean hain erabateko ziruditen erabakiak, igaro ostean ia ezdeus dira.

Hil edo bizikoa, bizien kontua da. Hildakoez ez dute bizi edo hilko erabakirik hartzen, guk dakigula. Biziak, berriz gure ustez, beti hil edo biziko ekaitzetan. Eta ekaitzotako trumoiak, hildakoen algarak ez ote diren, gure bizi-korapiloak ridikulu iritzita. Etxebizitza, lanpostua, inbidia txikiak... bizi-motibo. Eta hilek barre. Eguneroko buruhaustea, esan nahi eta ezinekoak, arazotxoak behar bizitzeko. Behar. Eta hilek barre. Maitemina bera ere, ez ote da bizi-oinarri minimoak erabat osaturik dituzten gizarteentzako asmakizuna... sabela bete-tzeaz arduratu behar ez duten egunei zentzu bat emateko modua... Eta, hala ere, hilek ez diote horri barrerik egiten.

Joan Mari Torrealdairen omenez

2020-08-01

Mendeetakoa, latza
gure ondarea
erauzi eta arrastan
daraman marea.
Langile nekaezinak
lan amaigabea,
alerik ale bildu
zenuen harea.

Euskara izan zedin
jakintzaren mendu
eta euskara jakintza
eta pentsamendu.
Ekinean egina
denak jakiten du
nola bilakatzen den
harea zimendu:

Hezurdura bat hitzen
mami beztuari
eta arnasbideak
arnas estuari

Euskararen begiak
mundu arrotzari,
letrak eta papera
gure ahotsari.

Eraikiaz erantzun
zenion bortxari.

Ta ankerrek ta koldarrek
ohi duten moduan,
gauean, bizkarretik
eta desorduan,
gizon jakintsu baten
bizitza onduan,
kolperik bortitzena
heldu zen orduan.

Mina muinean sartu
zizuten unetik
ere eman diguzu
ikaskizunetik.
Zenbat jakintza doan
zure hutsunetik...
jarraituko ahal dugu
utzi duzunetik!

Avemaria parkean jarritako harrian

Ez gara denok elkarren berdin
baina bai elkarren pare.
hitzen eta ertzen jabe.
Baina elkarrekin eraikitzeko
leundu behar goi ta behe,
zaugarri diren ertzak leundu,
leundu, kamustu gabe.
Harri guztiak dira desberdin
ta denak harri hala ere.

Ertzak leunduz lantzen lagundu
leheneko pasarteak.
Ez du denborak dena egingo,
euriak ta haizeteak...
Harria landu ahalko du soilik
guk hala nahi izateak;
elkarbizitzak, elkarri hitzak
entzun eta esateak.
Ez du denborak dena egingo...
bai, aldiz, borondateak.

‘Naturisme interdit’

Berria, 2003-07-29

Noren eskubidea da defendagarriago: hondartzan biluzik ibili nahi duenarena edo inor biluzik ikusteak begietako mina sortzen dionarena?

Haize-azalen larrujotze ferekaria erdi galarazita dago. Eskandalu publikoa da.

Hain ageriko egia bati eskandalu deitzen dion gizartea garbi mintzo da bere osasun mentalaz.

Ez dakit, aldiz, Erridikulo publiko izeneko deliturik existituko ote den, adibidez, gerrian eskuoihala jarri, esku batekin heldu, eta bestearekin Mr. Bean baino traketsago bainujantzia ezkutu ustean aldatzeko autosufizientzia harri-garria erakusten duenarentzat.

Bainujantzia... munduan den prendarik komikoena...

Besteren biluzia ezin jasana norbere biluzia jasan ezinetik etorriko da, noski; eta itsasertzeko terapia popular osasun-garri genukeena legez bazterturik dago, klandestinitatean.

Oso bestelako bista-gozoa, buru-patxada eta azalpoza genuke, hondartzak gorputz inperfektoen katalogo maitagarri balitzaizkigu; eta ez perfektu nahieko gorputzen ezintasun eta disimulu dantza.

4. HARKAITZA

ARRATSALDEKO eguzkiak goxo laztandutako harrizko pareta hori da Hernaniko frontoirik zabalena. Bertan harriari besarkatuta eskalatzaileak dabilta gora eta behera, frontala jantzi eta furgonetan lo egin behar bada ere. Metalezko dorrea zaindari, elektroien burrunba entzuten da erlauntza bailitzan. Iparrari begira, Igeldo eta Mendizorrotz; mendebaldean Lasarte eta Usurbil. Aimar Elosegik hemen eman zuen bere bizitzaren azken saltoa, airean zer pentsatuzko mezua utziz.



*Askok irudipena du
munduan nagoela tentuz
iraultzaile pentsamenduz...
...bai, etxerako ere banu!*

*Askok irudipena du
apala naizela oso
hitzez ta jarreraz gozo...
...bai, mikatzetik ez banu!*

Garapen jasangarriak

Berria, 2003-12-28

Gorputza dugu paisaia bigun bat, orografia bihurtunetsua, gorabehera leunen joan infinitoa. Badira gorputz mapa menditsuak, gorputz lautada luzeak, badira oihan iletsuak eta hareazko duna paisaiak ere. Gorputzen arteko harremanak sortzen ditu aldiroko habitat natural bereziak. Biosfera propioak, elkarrekikoan, garapen eredu jasangarriak behar dituztenak. Mikro-klima txiki bakoitzerako komunikazio proiektu aurrerakoi bat, harremanaren bide zidorretako harri kozkorak baztertuta: begirada sarea, eskualdeetako lotura eta hitzarteko garraio erosoak. Hartu-emanerako trenbide plan geltokiduna, jaitsi nahi duenarentzat; atzera-aurrerako bideak une batez begiratzekoa. Garapen modu osasungarria, habitat boterez kutsatuak garbituko dituenak, ohi-tura kuestiona ezinak eta hitzen esanahiak birziklatuko, eta gutxien kutsatzen dugun eta gaituen ingurugiroa sortuko. Ingurukoekiko ingurumenarekiko errespetuzkoa: familia eredu jasangarria; auto-jasangarritasuna; bikote edo lagunartean garapen jasangarria... Harreman ekologikoak.

Eta horretan bai berde.

Beti bezperako koplak

Ageda Kopla Taldearen
izen bereko filmean (2017)

Santa Ageda eguna,
beti bezpera duguna.
Ohitura batzuei ez zaie inoiz
iristen biharamuna.

Ezetzta jaso zuen arrak,
gizonak, jainko lurtarrak.
Eta Ageda gure martiriari
moztu zizkion bularrak.

Aterik ate kantari gatoz,
makil eta ahots ozen gu.
Etxe honetako nagusi jaunak
etxeke andrea jotzen du.

Kolpe eta kolpe aldaba,
hotsa mututuz ahal bada.
Baserri honetako osaba zaharrak
erabiltzen du alaba.

Kalean jator zeharo,
etxean dena birao.
Senar onaren labanak zeuzkan
odol gorrizko bi aho.

Aurrera goaz dena aldatzen da,
denbora pasa heinean.
Dena aldatzen da aldatzen ez den
oinarri baten gainean.

Beste zulo bat kiroldegian,
aldagela ohi den gizondegian.
Zulo bat berriz kiroldegian,
aldagela bat den andrategian.

Begi nini bat zulo erdian,
iltze zorrotz baten punta begian.
Labana zorrotz aortan,
garrasi min bat ahotan.

Zuhaitzak gizon bihurtzen dira
pasadizo itzal horretan.
Talde erasoan hiena,
pizti bakarrak nahiena.

Territorioa markatu nahia
Coloniako haiena.
Kalashnikov, bonba, makil,
bizitza merkeegi dabil.

Gerran gizonak hiltzen dituzte
andreak bortxatu eta hil.
Atsedean bat eskopetak,
botak kendu eta apretak.

Neska gazte bat mereziko du
gudariaren apetak.
Adios orain esaten diot,
Santa honekin batean.
Beti bezperan bizi gaitezen
zorionez eta bakean.

Jarritako gaia:
Dena ondo zihoan argia piztu den arte

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Irun, 2017-11-01

Trago bat eta beste trago bat
gure kaleetan barrena
ta piztea da alkoholak eta
sexu grinak dakarrena.
Zure etxera, nere etxera
betiko gauzak aurrena
zure logelan sartu gera ta
hara hemen ondorena!
Argia zegon itzalita ta
bertan biluztu naiz dena
ta bapatean piztu egin da
argi txiki xumeena
nere gerrira begira zaude
ez naiz uste zenuena. (bis)

Estali arte izan dugunak
nahiko irri nahiko broma
ahorik aho pasa dugunak
gin-tonic barruko horma
bular pareta zut neukan eta
zuk eman didazu forma
galtza estuak nebilzkin arren
ez takoi, eta ez gona.
Hau ta hura naiz hartzen ari naiz
zenbait botika, hormona
gizona eta andrea nauzu
ez andrea, ez gizona
nere inon ez egon nahia ote
da zure ezinegona? (bis)

Gizarte honen estereotipo
ta gizarte honen usteen
tranpan zu ari zera erortzen
eta hori ez dizut uzten.
Zuk badakizu nola zizelka
eta marraztu gaituzten
ze inporta du gaur ari banaiz
zure aurrean biluzten
eta neroni ni neu naizena
hori bakarrik gorpuzten
nere gerripe zintzilikako
desira ari da puzten...
Itzali zazu argia eta
utzi azalari ikusten. (bis)

Moio

Kattalin Minerren
Moio liburutik (2019)
[moldatua]

Aimar Elosegiren heriotzaren berri izatean, bai, kristoren kolpea eman zidan horrek.

Badelako gai bat, deitu sexualitatea orokorrean, baita transexualitatea ere, ba ez dela neutroa niretzat, ukitu egiten nau, eta mugitu egiten nau, zer pentsatua ematen dit eta kezkatu egiten ninduen orduan ere. Orduan niri ukitu zidan tekla bat, nahiko, ez dakit, barrukoa edo, sensiblea. Gertu izanak ere inpaktua du, ez da telebistan, ez dakit zeinengan. Ez da modu teoriko batean, baizik eta zure herrian zu baino gazteagoa den pertsona batengan eta ezagutu zenezakeen norbaitengan. Niretzat oso haragi bizikoa, gordina izan zen. Ostia, hementxe gertatu da, eta gainera gai hori.

Badut nagusiki rekuerdo bat, zer-nolako errespetuarekin eta zer mirarekin tratatu zen gaia. Eta niri hori iruditu zitzaidan ederra. Herri bezala ederra.

Transexualitatea, edo sexualitatea nahi baduzu, sailkaezin horietako bat da; handietako bat. Espresuki horrekin ari ginen lanean, gizartearen “markajeaz”, aurrejuzguez, generorol itxien itomenaz, sexualitateaz oro har, baita transexualitateaz ere. Zarena izan nahi eta izan ezinaz, finean.

Jendean begietan bestea zer den
nor den beti argi dago
Badakiela uste duenak
ezin du jakin gehiago
Pasa ez naizen nire bidean
Zer dago otia beste
Bizitza osoa dijoakigu
Izateko baimen eske
Gaur begirada umilagoaz
Goaz hobetzen ta hazten
Bidetxior horretan barrena
Ikusezina ikusten ikasten

Gero, bestalde, uste dut jende askok halako errespetu eta delikadezarekin ez zuela tratatuko gaia, hain prezio garestian, heriotza baten truke izan ez balitz.

Barne ahotsa ahots ausarta
Disfraz gabeko egia
Bistan da ikasgai batzuk duten
Prezio garestiegia

Zuk zure burua errespetatzen baduzu, besteek ere errespetatuko dute.

5. AULKIA

Ez da banku bat, besorik gabeko besaulki hau. Ez da bidean esertzeko dugun bakarra, baina bai zinematikoena. Maldatxo gainean, haritzaren ondoan, agertoki zabala dugu: Santa Barbarako pinudia ezker aldean; Mendioker, Buruntza eta Andatza parean; urrunago, Ernio eta Zelatun; eskuinaldean, Oriako bailara osoa zure oinetan. Paraje paregabea kea darion erraustegia ezarri digute kontrapuntu bezala, gainean lau argi gorri eta guzti, arriskuaz ohartarazteko edo. Baserriko txakurrak zaunka.



*Askok irudipena du
ni beti naizela grazi-
egin ta eginarazi...
...bai, tristurarik ez banu!*

*Askok irudipena du
polit naizela ta lirain
hain eder, hain berezi, hain...
...bai, euren begirik banu!*

Eskuak zenbat dezakeen

Hernani, 2010-03-06

Eskuak zenbat lezakeen? Keinu bat... mugimendu txiki bat baino ez badu...?

Eskuak, ohitura bere egin du, bere keinua, betikoa eta betikotua.

Ohitura barruan gogortu zaio. Kosta egiten da aldatzea. Beldurra ematen du aldaketak. Ohitura segurtasuna da eta heldulekua.

Baina eskuak mudatu dezake keinua, ahalegin txiki bat baino ez da beretzat.

Dena batean pilatzen zuena berezi dezake hainbatetan. Eta egunean-egunean atarian utzi.

Berritasunaren ikara, berritasunaren indarra bihurtu dezake eskuak. Ausartu egin behar du, froga egin; moldatu, hobetzeko.

Eskuak zenbat lezakeen eskuratu?

Eskukadaka. Erosi eta erosi eta erosi ahala poltsa barrenetara.

Baina orain ez da gehiago plastikozko poltsarik. Eta eskua errez ohitu da adibidez horretara. Ez baita berria. Amek eta amonek aspaldi irakatsia zutelako kapazuarekin enkargutara joaten.

Batzuetan, aurrekoek baitituzte geroko arazoan irtenbideak. Irtenbide xumeak, garbiak, logikoak. Batzuetan aurrera egiteko aurrekoei begiratu behar zaie.

Eskuak zenbat lezakeen ezkutatu?

Nahiago badu ez ikusi. Zikina bazaio hondakina, lotsatzekoa. Pilatzen badu dena batean eta lehenbailehen nahi badu kendu, bota, urrundu dezatela beragandik, ezkutatu dezatela nonbait. Berea ez balitz bezala, nahiago du ez jakin, zer den, zenbat den, zer eragiten duen...

Baina, eskuak zenbat lezakeen esku-hartu?

Zer behar du? *Ausartu eta ardura hartu*. Begiratzen badio aurrez aurre bere bizimoduaren aurpegi ezkutuari, itzalekoari, kondarrari. Eta hartzen badu berearen ardura, bere hondakinena. Eta hondakin horiekin ohartzen bada lehen janari zena, lehenago enbase zela, enbase haiek garraio, garraio haiek petroleo... eta etxeko hondakin apurrak mundu logika oso bat azaleratzen dio. Eta bere esku hartzeaz galdetu.

Eta orduan hondakina ongarri zaio. Bere koherentziaren ongarri.

Eskuek zenbat lezaketen eskutik?

Badezakete...? Zabartzen badu eta zabortzen dena zatiketa politikoak... baita hondakinak ere.

Eta bai, hondakinena ere politika izaki. Baina ez da, ez luke behar, alderdien politika. Bestelako politika baizik, politika ondo ulertua. Alderdien zatiketaren, interesen eta negozioen gaintik, bizimodua hobeto antolatzeko den politika; politika orok beharko lukeen bezalako politika. Gure herria eta lurra, gaurkoen eta ondorengo osasuna zainduko duen politika.

Eskuak zenbat lezakeen eskubidez?

Europako eta bertako araudiek ere eskatzen badiote zaindu dezala, bereiz dezala, birzikla dezala... Onartu badute gaikako bilketaren onura...

Eta auzoko herriek erakutsi badiote bide bat, berria, interesgarria, bizigarria eta elkarlanean egiten dena.

Etxea den bere eskumen txikian, ardura hartu du esku batek. Aldatu du ohitura. Berritu du keinua. Abian da.

Eta esku batetik, eskualdera, eskualdetik Euskal Herrira...

Eskuak zenbat dezakeen! Eskuz esku! Atez ate.

Bederatzi puntuko bertsoa osatzeko hitza:
Sua

Doinua: *Betroiarena*
Barakaldo, 2009-12-13

Hura asmakizuna
homo habilisena!
Bazun intentzioa
bazuen sena!
Bi harrik elkar jota
txispa bat aurrena
asmakizun haundina
mendeetan barrena.
Sua da problema
zenbait basorena
edo jaki dena
berotzen duena
eta bi begiradek
sortzen dutena. (bis)

213 hitz baltsa batean

Euskadi Irratia, 2016-06-15

Egoneza, gaua, barkua kulunka, dirua, paperak, iparra kulunka, gezurrak, beldurak, ezinbestea, motorra, gasoila, Libian abian, zeruak eta urak, umeak, umeak, gizonak eta andrak, gizonak, andra gizon eta ume andrak, bultzada, giharrak, zapiak, otoitza, izarrak, izuen usaina, gatza, zauria, ezpainak, haizea, odola, taupadak, begietan zainak, estutu, besoak, azalak, arrotzak, beroa.

Estu, justu, larri, lehorrean eta ito, urtean eta egarri, sandaliak, behatzak, esnea, bularrak, hizkuntzak, ahotsak, intziriak, bortxa, hotza, korrontea gauez, nora, norabait, noraez.

Txaleko laranja, kresala, salitrea, Siria, Afganistan, Irak, Eritrea, mugikorak, arnasa, orduak eta orduak, ur azala, plastikoa, izurdeak, gorpuak. Olatuak toletan, kolpe eta kolpeka, olatuak oholetan, ura txaplaka txankleta zoletan.

Piza, izterrak, enbata. Bali, busti, izu, eta bagan gorantza, balantza, harantza, alde baterantza. Eta bagan, beherantza, balantza, honantza, beste alderantza.

Izertia, hatzaparrak, egur zaharrean azkazalen marrak, lehertzean aparrak, zipriztinak, metralla, oroitzapenak.

Israel, Turkia, Europa, Obama, ihesi zuengandik, ihesi zuongana. Gosea ta daesa, uraren errea, egurra kirrinka, urdaia goitika, nekeak, kiratsa, garrasi, tentsio, bizinahi, herio, jitoan dijoa irla biziduna, jendea jario.

Etsi, eutsi, irau, irauli. Argi bat, inshala faroa, inshala area, manta termikoen urre kolorea, argi bat, argi bi, polizoi, polizi, itsas-aduana, ihesi eurengandik, ihesi eurengana.

Ezinbesteko gutuziak

2004-05-15

[moldatua]

Ezinbestekoa arnasa da
Ura, jana eta kariño apur batez, edonora
Ezinbestekoa irribarrea, loa, ilusio ttantta eta askatasuna
Askatasun ustea bederen
AHTa, mila autobia...
Zenbat gutizia partikular
Proiektu Estrategiko Ezinbestekoz mozorroturik
Hitz ulergaitzen pisuzko itxuraz
Zertaz ari gara?
Nola bizi izan gara horiek gabe?
Pentsatzea ere?!
Pasaiako Portua estrategiko?
Ez!
Sinetsarazi nahiko digute
Oxigeno botilatxoak ere ezinbestekoak direla
Eta ez!
Ezinbestekoa arnasa da.

6. LAUBIDIETA

—ZURE auzoan gaude. Nolakoa zen bazter batetik bestera ibiltzen zen haurra?

—ETXE hauek denak ez zeuden. Hau, zelai berde bat zen, baratzeak zeuden, eta behiak. Behi horiek gure aitarenak ziren. Hori zen paisaia bisuala eta sonoroa. Herria ikusten zen urrutian, eta futbol zelaia, Txantxilla... Gure etxea herritik urruti xamar zegoen, eta nire haurtzaroa etxe bueltan pasatu nuen, lehengusu eta auzoko ume artean. Ez ginen kalera asko joatekoak. Ikastola eta tilosetako frontoia dira nire txikitako beste espazio bitala, eta frontoian pasatzen genituen ziren ordu guztiak: eskupilotan, futbolean, palan... ikastolatik frontoira eta frontoitik etxe bueltara, halaxe pasatu nuen haurtzaroa.



*Askok irudipena du
egin diodala gaur be
harro bizitzari aurre...
...bai, zertaz harrotu banu!*

*Barruz mami, larruz mamu.
Zer bistan, hura gabezi.
Zuk ez. Zu hain zara berezi...
...askok irudipena du...*

Emakumeak behar ditugu

Berria, 2003-07-27

Barka hain orokorki mintzatzea. Ez naiz ni bereizketa generiko absolutuen zale. Baina bai, emakumeak behar ditugu gero eta zidorrigo den herri-bide honetan. Emakumeak, motor eta sorburu, bizitzen asmatu nahi honen muinean.

Euren bizi-jarrera, superbibentzia sena, plazaratuko duten emakumeak. Entzuteko eta hitz egiteko modu bat; gauzak ulertzeko, jaso eta emateko era; benetako garrantzia zerk duen bereizteko gaitasuna.

Gogoan dut, miretsi dut, adibidez Malores... adibidez, sekula protagonista ez diren hainbat Egunkaria-ko langile... adibidez.

Adituak izanagatik entzunak ez diren emakume horiek behar ditugu. Euren intereseko gaiek, besterentzat garrantzirik ez dutela uste duten emakumeen kezkek. Euren iritzi propioa gutxiestera heldu diren emakumeen ideiak. Euren hitzak, inork kontutan hartu gabe haizeak daramatzala ikusten duten emakumeen ekarria.

Jarrera emeak behar ditugu.

Arazoa da, diodan hau ere, askoz xarmangarriago litzaitekela, indartsuago, sinesgarriago, garrantzitsuago, gizonetzko batek esan izan balu.

Eroanda joan

Berria, 2004-04-07

Eta itzuli.

Itzulia. Euskal Herrikoa. Karreraren ibilbideak zirriborro zirkular bat marrazten du maparen gainean. Zirkulu bukatu gabe bat: aurten Iparraldera ez da zabalegi harturiko bihurtune batean ere sartuko. Itzulia. Oteizarena. Marra zirkular bat erlojuaren norabide kontrari, eta marraren amaieran gezi mutur bat; zirkulu itxi gabearen marrazkia: “irse siempre es volver” dio jakintsuaren igeltsuzko keinuak. Bere eskelaren ertz batean ere ageri: joatea itzultzea da beti. Itzulia. Euskal Herrirakoa. Itzuli beharrik ez zutenen itzulia. Joan behar ez zuenak ez du zertan itzuli. Baina itzuli dira; orain lau, lehentxeago beste lau, aurretik 18, 98... Zirkulu ilun bat marraztu ondoren beren bizitzetan. Zirkulu itxi gabe bat: askatasuna baldintzapekoa eta batzuentzako da. Parentesi bat: urtebetekoa, bi urtekoa, X urteko paret-hesia. Paret-hesi karratuak, ipar eta hego, maparen azpian oinarritzko zirkulu komun bat marraztu lanetan dabilzanentzat.

Joatea itzultzea da beti. Joandakoak itzultzen dira. Itzultzea, ordea, ez da beti joanaren ondorio. Joatea eroatea ohi da.

Ondoloin

2princesesbarbudes-en

Gaueko entziklopedia koxkorra diskoan (2014)

Eguna logure da eta ixten ari da begia
lehen eguzki beste zena orain ilargi erdia
ondoloin ondoloin
buru bat eta bi oin

etzanda egingo dizu kulun-kulun ilargiak
eta ametsetan ikusteko zuk ere itxi begiak
ondoloin ondoloin
buru bat eta bi oin

gozo biltzen zaituen laino zurizko tapaki
zure ametsetarako bidea berak badaki
ondoloin ondoloin
buru bat eta bi oin

zeruko ipurtargiak esnatzen doaz gutxika
haien artean haizea klin klin klin izar-musika
ondoloin ondoloin
buru bat eta bi oin

gure jostailuzko tresnak ttun-ttun haize eta hari
zu lokartzeko kantatzen beraiek lo hartzen ari
ondoloin ondoloin
buru bat eta bi oin


Kopia bat gehiago

Mikel Errazkinen

Azken momentuan diskoan (1997)

Aho-zulo pozoitsuetatik
hitz zornedunak heltzen zaizkit
zenbaiten buruetan zein mamu gaizto dabil
begiradarekin hil nahi nautenean, ze egin?
zentzuak egin nau arau-fosilen etsai
nora noan ez dakit, baina nondik noan bai!
Mila begi gainean
mila hitz aidean
denen bide berean
nik ez dudalako joan nahi!
Gurutzea, kateak, molde zaharrak oinarrian
berdin ez izatea traizio den herrian
eskema kuadratuak denborak zartatu ditu
lehengoen oin-urratsak berriz zertan jarraitu?
Gurutzea, kateak, molde zaharrak oinarrian
berdin ez izatea traizio den herrian
neri ez deitu arrotz, ez berezi, ez arraro
soilik ez dut izan nahi kopia bat gehiago

Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2020ko azaroaren 22an
Matrioxka izeneko
ekitaldian



Askok irudipena du
apolineo naizela,
hala da, baina bestela
Dioniso ere gura dut.

MATRIOXKA

(porra)

Nork musikatu du
Maialen Lujanbioren letraren bat?

Bai

Ez

1. Alaitz Telletxea

2. Maddi Oihenart

3. Eñaut Elorrieta

4. Miren Narbaiza

5. Ixiar Oreja

6. Maite Larburu

7. Natxo de Felipe

8. Olatz Zugasti

9. Anje Duhalde

10. Rafa Rueda

11. Xabi Solano

12. Mikel Markez